

## SANTOS JUANES PARROKIA



**L**enengo aitaturko dogun Parrokia, Santos Juanes deritxona dogu. San Antonen eleizaren ondoan egon zan. Alde batean gaxotegi bat egoan, eleizatxu bategaz bat egin da. Gaxotegia gaxoentzako eginda egoan batez be Santiago erromesen atsedenerako. Eleizea, denporagarrenean Parrokia biurtuko zan. Itxuraz gotiko erara eginda egoan, bere dorre ta guzti.

Barrua sabai batekoa zan aurrez aurre San Juan Bautistaren erretabloa ikusten zan; alboetan Kristoren Vera Cruz ta Bakarteko Amarena. Illobiak solairuan, lurrean zear, arripetan, arkitektuten ziran.

Denborakarrenean uriolagaitik, kalte andiak egin jakozan eta gordeleku lez biurtu zan. Alan da be gauza bitxi bat aitatu bear da eleiz onetan agertuten zan zaletasuna Santa Vera Cruz kofradiaren bitartez. Asikeran Eguen ta Bariku Santuz antzeztuten ziran Kristoren atzillotzea ta beste eginkizun Nekaldikoak. Zarrenetarikoa 1700 urtekoa da. Arantzazko koroia Burgosen egindakoa da, Manuel Romero izenekoak. 1770an Kofradia aldatzen da Cruz kaleko eleizara, zeuzkan gauza gustiekaz. 1924an beraganatzen dau Kintin de la Torrek tajututako "Ortuko Otoitza". 1926an egille berberak egindako "Kurutzetik jatziera" ta "Iru Kurutze" deritxona. 1944an agertzen da "San Juanen" irudia Jose Larrea Etxanizen eskukoa. Urte berean ikusten da Higinio Basterrak egin eban "Kristo etzana". Eta 1947an Ricardo Iñurrietak osatu dauen "Zigorkadea"

Cruz kaleko Jesuiten Parrokia. Asko lagundu eban orretarako San Francisco Borjaren Bilboko egotaldiak. Bai ta A. Landaida, Jesuiten ikastetxeko Zuzendariak, San Iñazio Bizkaiko Zaindaria lortearren egin ebazan alegiñak. Aitatu bearezkoa Parroki orretan egon zala Cardaveraz Aita, Jesusen Biotzaren zaletasuna nonai edatzen eta Parrokiko elizan zaletasuna sendotzen.

1767an kanporatu ziran Jesuitak Bilbotik, minduta itxiaz ainbat jende eleizara joaten ziranak. Karlos III erregearen agindua "Estaduaeren onerako eta seguridaderako zalako" Je-

suiten San Andres Ikastetxea, Santos Juanes Parrokia biurtuzan. Sarrera eta barruko egiturak Rococo erakoak dira.

Erretaula aurre aurrekoa, alboetako kapelak, aberats eta ikusgarriak. Ainbat Santu ta Santaen irudiak kokatuta daude eurretan. Adibidez San Pedro ta San Paulo, San Juan Bautista (bi metrokoa) San Andres, Neketako Ama, Ecce Homo, San Inazio, San Francisco Xabier, San Luis Gonzaga, Santa Lucia, Santa Ageda, San Jose, San Bruno, San Rafael... etabar.

Bitxiak dira eleizkizunetan erabiltekoak: Kustodiak, andi

ta txikiak, intzenontzia, Koppoiak, Kalizak, Jofainak...

Pontea ta Jaun ospetsuak: Juan Crisostomo de Arriaga, J. A. Victor Agirre, Pedro Fontecha Salazar, Pedro Novia Salcedo, Gabriel Henao, Agustin Cardaberaz, Estanislao Jaime Labayru.

Asko ta asko izan dira Santos Juanes Parrokietan lan egin daberen abade eta eleiztar jainkozaleak. Bastertuta egon daitezke munduan, baña ez Jaungoikoaren aurrean.

**MUNETXEK egokitua**

